



Hiztegia landu eta filma ulertu

1. saioa

Filmaren ulertzeko hiztegia barneratu

Sekuentziaren helburua :

-Grufaloo filmaren ikustera joan eta ulertu

Helburu hau aurkeztu haurrei :

“Grufaloo deitzen den filmaren ikustera joanen gara ..., eta aitzin lan egingen dugu, filma ikustean dena ongi ulertzeko.

Luzaz landuko dugu hitz berriak ongi uler ditzazuen eta bukaeran, ainitz lan egin eta, gai izan zaitezten, filmaren ulertzeko, zinemara joanen girelarik.”

Ipuina laburbildu :

“Sagu ttipi baten ipuina da, ibilaldi bat egiten duena, eta bidean beste abere batzuk kurutzatuko dituena.”

Saioaren helburua

-Filmako abereen izenak ikasi :

“Filmaren ulertzeko, aipatzen den guzia ongi ulertu behar da. Egun, filman agertzen diren abere guzien izenak ikasiko ditugu.”

Materiala

-Filmeko abereen izenen gogoan hartzeko irudiak

-“hitzen memoria” kartak

-untzi bat, zapeta untzi bat demagun, filmaren azalarekin gainean

HIZTEGIA GOGOAN HARTZEN IKASI

-Erran :

“Denek zuen memorian kutxa ttipi bat idekiko duzue (alegia kutxa bat idekiz) : erranen dugu Grufaloo deitzen den kutxa dela. Hor bilduko dituzue irakatsiko dizkizuedan hitz guziak. Garrantzitsua da hitz horien ikastea, laguntzen baitute ipuinaren ongi ulertzen...”

-Kutxa irudikatzen duen logoa erakutsi eta azaldu :

“Trudi hau ikusiko duzuen aldi bakotx, jakinen duzue hitz edo erranmolde berriak ikasiko dituzuela...”



-saguaren irudia afitxatu.

sagua



Erran :

“Hastapenean, filmean, sagu bat bada.

Sagua abere ttipi bat da.

Izan daiteke marroina, xuria, beltza, edo grisa, ile motza du.

Karraskari bat da. Lurrean egiten dituen ziloetan bizi da.

Orojalea da, denetarik jaten ditu.

Irudia gorde eta hurrei galdegin :

“Ideki kutxa zuen memorian. Ikusten duzue saguaren irudia? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz erakutsi eta ikasleak hitza erraitera gomitatu.

Munstroaren irudia afitxatu.

munstroa



Erran :

“Ikusten duzue munstroa, munstroak ez dira esistitzen.

Izaki beldurgarri, bitxiak dira, adibidez 3 begi dituzte, 4 erri,...

Irudia gorde eta ikasleei galdegin:

“Idek ezazue kutxa memorian, ikusten duzue munstroa? Egiaztatzen dugu?”

Irudiak berriz erakutsi eta ikasleak hitzen erraitera gomitatu.

Azeriaren irudia erakutsi

azeria



Erran :

“Ikusten duzue azeria.

Azeria abere bat da, gehienetan marroin, laranja kolorekoa.

Beharriak beltzak ditu gibelean, muturrean xuria badu, baita buztan punttan.

Haragijalea da.”

Irudiak gorde eta hurrei galdegin :

“Idek ezazue kutxa memorian, ikusten duzue azeria? Egiaztatzen dugu?”

Berriz afitxatu azeriaren irudia.

Ikasleak hitza erraitera gomitatu.

Hontzaren irudia afitxatu.

hontza



Erran :

“Irudian hontza ageri da.

Hontza hegazti bat da, xori bat.

Gaueko hegazti harraparia da, haragijalea.

Adibidez jaten ditu saguak.”

Irudiak gorde eta ikasleei galdegin :

“Kutxa ideki zuen memorian. Ikusten duzue hontzaren irudia? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz agertu.

Hontza hitza erraitera gomitatu.

Sugearen irudia afitxatu.

sugea



Erran :

“Filman, beste abere batzuk ere badira.

Bada suge bat.

Sugeak kolore eznerdinetakoak izan daitezke, marroinak, perdeak, edo beste.

Sugea narrastia da, lerraka ibiltzen da.

Haragijalea da, adibidez saguak jaten ditu.”

Irudia gorde eta hurrei galdegin :

“Ideki kutxa zuen memorian. Ikusten duzue sugearen irudia? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz erakutsi eta ikasleak hitza erraitera gomitatu.

Urtxintxaren irudia afitxatu

urtxintxa



Erran :

“Ipuinean, urtxintxak badira.

Urtxintxak abere ttipi batzuk dira, marroin laranja kolorekoak.

Karraskariak dira, jaten dituzte hurrak, intzaurrak,...”

Irudia gorde eta hurrei galdegin :

“Ideki kutxa zuen memorian. Ikusten duzue urtxintxaren irudia? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz erakutsi eta ikasleak hitza erraitera gomitatu.

Irudi guziak banan banan erakutsi, hurrei hitzak erranaraziz.

Hitzen memoria kutxa erakutsi hurrei (zapeta kutxa bat Grufaloaren irudiarekin gainean), Grufaloa filmatik ikasi hitz guziak hor bilduak izanen direla azaldu.

Sagua karta eman haur bati, izendatzea galdegin eta ondotik berriz kutxan biltzea.

Gauza bera beste hitzekin.

Kutxa agerian utz, mementu libretan jostatzeko erabil dezaten : izendatzeko, deskribatzeko, sailkatzeko,...

2. saioa

pertsonaien lekuan ezarri

Saioaren helburua

pertsonaien lekuan ezarri filma hobeki ulertzeko

Materiala

Hiztegiaren berrikusteko irudiak

abereen maskak

plastikozko abereak

1 Lehen saioaz oroitu

Ikasi hitzak berrikusi

Erran :

“iak ikasi aitzin, ea zuen memorian ongi gordeak diren joan den aldian ikasi hitzak... Egiaztatzeko, banan banan irudiak erakutsiko dizkizuet. Kasu! Ez erran berehala izena, denek ukan dezazuen denbora zuen memoria kutxean miatzeko. Hitza hatxemana ukanen duzuelarik, eskua altxa mintzatu gabe eta zuetarik bat galdezkatuko dut.”

Banan banan irudi guziak afitxatu, eta haurrak galdezkatu izenak eman ditzaten.

2 Saioaren helburua aurkeztu

Ikasleei erran abereak bizi diren lekuak ikasiko dituztela, eta pertsonaien lekuan ezarriko direla jostatzeko, ipuinak asmatzeko.

Erran :

“Oroit zarete, azken aldian, erran nizuen Grufaloe filmaren ikustera joanen ginela. Zer egin behar da filmaren ulertzeko gai izan nahi bada?

Ad: “dena buruan atxiki behar da, hitz guziak”

Segitu :

“Hori da, Grufaloe filmeko hitz berri guziak ulertu eta memorian ezarri behar dira.

Horren egiteko pertsonaien lekuan ezartzen ahal gara : zer gerta liteke hontza eta sagua elkartzen balire? Edo sugea eta sagua? Entseatuko zarete haien lekuan ezartzen.”

3 Saguaren eta hontzaren lekuan ezarri tarte batez

Sagua eta hontza afitxatu arbelan.

Elkarrizketen burbuila ezarri arbelan, eta azalpenak eman :

“Burbuila laukia horrek erran nahi du pertsonaia mintzo dela, zerbait erraiten duela.”

Ikasleak gomitatu saguaren lekuan ezartzera asmatzeko zer erran lezaketen haren lekuan, hontzaren aitzinean.

Ikasleek erraiten dutena burbuilan idatzi.

Arbeleko burbuila aldatu.

“Laino itxura duen burbuila horrek erran nahi du pertsonaiak bere buruan pentsatzen duela eta beraz nehork ez duela entzuten ahal pentsatzen duena.”

Ikasleak gomitatu saguaren lekuan ezartzera asmatzeko zer pentsa lezaketen haren lekuan, hontzaren aitzinean.

Haien proposamenak idatzi. Ohartarazi haurrei ezin dela deus egiaztatu, filma ikusi arte!

4 Hontzaren lekuan ezarri tarte batez

Hontza eta sagua afitxaturik beti, gauza bera egin, bi burbuilak aldizkatuz.

5 Haiek asmatu eszenak “jokatu”.

2 haur hautatu eta maska bana eman.

Azaldu :

“Ikusiz orain filmeko abereak ongi ezagutzen dituzuela, zuetarik 2-k jokatuko duzue, pertsonaien lekuan ezarriz, pentsatzen edo senditzen dutena asmatuz. Kasu! Besteek ez duzue moztzen, beha egoiten zarete buka dezaten, gero osatzeko...”

6 Kondatzen trebatzeko materialaren aurkezpena

Plastikozko pertsonaiak haurrei aurkeztu

“Ikusi duzue zer ekarri dutan? Nork erraiten ahal dit zer den?”

Ad : “Filmeko abereak dira! Sugea, hontza, sagua,...!”

“Bai, hori da, filmaren asmatzeko erabiltzen ahalko dituzue .”

3. saioa

Abereen bizilekuak ezagutu

Saioaren helburua

Lekuen hiztegia ulertu eta memorizatu

Materiala

Hiztegiaren berrikusteko irudiak

Irudi hitz karta berriak

“Hitzen memoria” kartak

Kartoiinezko maketa eta plastikozko pertsonaiak

Irudi diktaketa fitxak

1 1. eta 2. saioak gogorarazi

Haurrei galdegin aitzineko saioan zer ikasi duten.

Ad : “Abereen lekuan ezarri gira, eta xekatu dugu zer pentsatzen zuten eta hola.”

Ikasi hitzak berrikusi. Erran :

“Ikasi hitzak beti memorian dituzue? Joan den aldian bezala, irudiak banan banan erakutsiko dizkizuet eta aldizka izendatuko dituzue, denei xekatzeko denbora utziz. Eta eskua altxatuz erantzuteko.”

Irudiak banan banan afitxatu,... eta izendatu.

2 Hiztegi berria memorizatu

Azaldu :

“ Egun, hitz berri batzuk ikasiko dituzue, filmaren ongi ulertzeko. Memoria kutxan bildu beharko dituzue zinemara joaitean gogoratzeko.”

Afitxatu irudia

baso trinko eta iluna



Erran

“Ipuina baso ilun eta trinko batean gertatzen da, argirik ez da, eguzkia ez da sartzen, zuhaitzak handiak dira, ainitz badira...”

Irudia gorde eta hurrei galdegin

“Ideki kutxa zuen memorian. Basoaren irudia ikusten duzue? Egiaztatzen dugu?

Irudia berriz erakutsi eta ikasleak lekuaren izendatzera gomitatu.

Afitxatu irudia

harriaren ondoan



Erran :

“Ipuinean, harri ondoa aipatzen da.
.....”

Irudia gorde eta hurrei galdegin :

“Ideki kutxa zuen memorian. Ikusten duzue harri ondoa? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz erakutsi eta ikasleak lekuaren izendatzera gomitatu.

Irudia afitxatu.

erreka xokoan



Erran :

“Filmean, erreka xokoa aipatzen da.
Erreka ur bizia da, mugitzen da, inguruan badira harriak, landareak...”

Irudia gorde eta hurrei galdegin :

“Ideki kutxa zuen memorian. Ikusten duzue erreka xokoa? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz erakutsi eta ikasleak lekua izendatzera gomitatu.

Irudia afitxatu.

aintzira ertzean



Erran :

“Filmean, aintzira ertza aipatzen da.
Aintzira ur geldi handi bat da, ertza, bazterra...”

Irudia gorde eta hurrei galdegin

“Ideki kutxa zuen memorian, ikusten duzue aintzira ertza? Egiaztatzen dugu?”

Irudia berriz agertu eta ikasleak lekuaren izendatzera gomitatu.

2 Maketa aurkeztu

Leku ezberdinak irudikatzen dituzten kartoinak erakutsi (sinpleki komuneko paperaren kartoinarekin egin daiteke, irudian bezala, lekuaren irudia kolatuz kartolinaren gainean eta euskarrian sartuz), erran

“Ikusi duzue zer eraiki dutan? Filmaren asmatzeko erabiltzen ahalko duzuen maketa da, pertsonaiekin eta hauekin batera aritzen ahalko zirezte...”

